

UZTAILAREN 10ean BAIONAKO UDAKO IKASTAROAK HASIKO DIRA

Ondoko ikastaroak eskainiko ditugu:

- **Coaching-erako sarrera**
- **Emozioak eta norberaren gaitasunak lantzen**
- **Euskal Mitologia: hurbildu antzinako euskal mundura**
- **Itzulpenaren teoria eta jarduna**
- **Elikadura burujabetza eta agroekologia: nekazaritza iraunkorrean sakontzen**
- **Euskal Haur Literaturaz zer dakigu?**
- **Ekintza Kulturala baten sustapena**

Jakoba Errekondo: “Euskal Herrian etxe barruan oso landare gutxi erabili dira, gehiago erabili dira kanpoan”

UEUko Udako ikastaroen 41. edizioaren barruan Jakoba Errekondo paisajista eta agronomoak “Etxe barruko landareak” saioa eskaini du “Etxebizitzen zaharberritzea bioeraikuntza irizpideen arabera” ikastaroaren barnean. Landareen onurak ugariak direla azaldu du bertan.

Ze irizpide eman dituzu zure saioan?

Nire saioa etxe barruko landareetan oinarritu da, baina ni kanpoko landareei buruz eta etxeke landareei buruz hitz egiten saiatu naiz, hau da, ez bakarrik barrukoei buruz. Kanpokoak eta ingurukoak ere kontuan hartu ditut. Horrekin batera, gure osasunean zer nolako eragina duten azaltzen saiatu naiz baina ez osasun fisikoan duen eraginaz bakarrik, gure osasun mentalean duen eraginaz ere jardun dut.

Ikastaroak gauza gehiagoren artean pertsonen osasuna jartzen du lehentasun bezala.

Honi lotuta etxe barruan landareak edukitzeak zer suposatzen du?

Ba gauza asko. Gai horren inguruan ikerketa asko egin dira eta emaitzak hor daude: alde batetik airea garbitzen du, bulegoak bezalako tokietan ere bizi kalitatea handiagoa ematen dute, airea filtratzen dute, eragile kutsatzaileak filtratzen dituzte eta ziklo naturala bideratzen dute, ioi negatiboak sortzen dituzte... azken finean onurak oso handiak dira. Bizi egoera ere hobetzen du, estresa kentzen laguntzen du, bistaren osasunarentzat onak dira eta estetika politaz gain beste gauza askotarako onuragarriak dira landareak. Adibidez, ordenagailuak dauden tokietan eta denbora luzean lana egiten dutenentzat oso gomendagarria da, radiozioak xurgatzen baititu.

Landareek ze motatako lotura izan dezakete bioeraikuntzekin eta etxeen zaharberritzearekin?

Bioeraikuntza azkenean ez da teknika zehatz bat, gauza pila egin daitezke alor horri begira: energia aurrezteko, bizitoki osasuntsuagoak egiteko, toki iraunkorragoak... Nik uste dut horrela pentsatzen jarrita, eraikuntzetan landareak erabiltzea ere nahita nahiez datorrela, azkenean guzti hori batura bat da. Laburbilduz, Bioeraikuntza osasunaren sinonimoa da; "bio" ikuspegitik eraikitzen hasten bada, hor jartzen ditugun landareentzat ingurua ere askoz osasuntsuago izango da eta ondorioz beren lana hobeto egingo

dute.

Kasu honetan landareak ere eraikuntzaren prestaketei egokitu beharko lirateke ezta?

Landareak osasun hori lortzeko bitartekari bezala erabiltzen baldin baditugu, zenbat eta toki kaltegarriagoan ezarri landare horiek lan gehiago egin beharko dute. Aldiz, "bio" ikuspegitik eraiki dugun eraikuntza bat baldin badaukagu landareei lana erraztuko diegu.

Euskal Herrian erabili diren landareei buruz hitz egingo zeniguke? Edo zeintzuk diren erabili beharrekoak?

Euskal Herrian etxe barruan oso landare gutxi erabili dira, gehiago erabili dira kanpoan. Baserritarrak baserritik edo etxe-eraikuntzatik kanpo egiten du eguna, orain alderantziz gertatzen da: Gizarte aurreratuetan bizitzako %90a eraikuntzen barruan pasatzen dugu, beraz, landareak etxera sartzeko premia ekarri du horrek. Lehen ez zegoen premia hori, landareak bertan kanpoan genituen. Gure baratzetan sendabelarrak, lokarriak egiteko landareak, ritualetarako, janaria, bazkaria animalientzako... erabiltzeko eta disfrutatzeko diren landare guztiak daude, azken finean hori ere etxea da. Hor dago gure benetako ohitura eta hori da etorkizunean gure oinarria izan beharko lukeena. Etxea ez da bakarrik barrua baizik eta kanpoa ere. Adibidez energiaren aurrezpenari begira frogatu da inguruan landare mota bat etxean kokapen zehatz batean jartzeak udan hozteko eta neguan berotzeko gaitasuna izan eta energia %20an aurrezten laguntzen duela.

Galder Guenaga: "Fluxu-egoeran pertsonak bere arreta osoa helburu errealista batean zentratzen du erabat, gustuko duen jarduera baten bitartez"

Galder Guenagak UEUko Ekonomia Saileko kideak eta Bilboko Enpresa-Zientzien Unibertsitate Eskolako irakasleak (UPV/EHU) eta ueukideak "Lidergoa, emozioak eta fluxua erakundetan" hitzaldia eskaini du.

Galder Guenagak, bere ikerketa-lan batean oinarrituriko "fluxu-egoera" kontzeptua zer den azaldu du hitzaldian. Fluxu-egoera "gure gorputza nahiz burmuina baliotsua eta eskuragaitza den zerbait lortzeko borondatezko ahalegintzen direnean" gertatzen dela esan du.

Fluxu-egoeran pertsonak bere arreta osoa helburu errealista batean zentratzen du erabat, gustuko duen jarduera baten bitartez. Kaosa desagerraraziz (beldurra, antsietatea, estresa...), pertsonak bere indar psikiko guztia bere jardueran aplikatzen du, kontzentrazio handiz. Fluxu-egoera horrek aurrez finkatutako erronka lortzea ahalbideratzen du, produktibitate-, gozamen- eta nortasunaren garapen-maila handiak lortuz. Barne-motibazio itzela lortzen da fluxu-egoeran eta motibazio horrek emaitza apartak ahalbideratzen ditu, produktibitatea hobetzen delarik. Eta gainera, pertsonaren auto errealizazioa sendotzen da ere.


Jendeak orokorrean pentsatzen duenaren kontra "lanean gertatzen da fluxu-esperientziarik gehien". Hau da, enpresetan. Noski, enpresa hitza zentzu zabalean ulertuta. Edozein proiektu antolatuan, esaterako: eskolan, unibertsitatean, erakunde publikoetan, lantegietan etab. Izan ere, lanean erronkak zehatzak ditugu eta horrek gure arreta fokalizatzen laguntzen digu.

Fluxu-egoeraren ondorioz, auto errealizazioa ahalbideratzen duen enpresa-kultura indartsu bat lortzeko beharra dago eta kultura hori sortzea liderraren eginbeharra dela pentsatzen du Guenagak. Ingurune fisiko, sozial eta emozional jakin bat lortzea, bertan lankideek beren lanaz

Prentsa-harremanetarako: Idoia Torregarai

Tel.: 629 48 24 74

komunikazioa@ueu.org



ueu
udako
euskal unibertsitatea

goza dezaten eta lan eginez beren burua gara dezaten. Baina, liderrak ez du beste guztien gaintik egon behar, ezta ere enpresan gertatzen den dena bere kargu hartu beharrik ere.

Galderrek etorkizuneko erakundearen ezaugarriak zeintzuk izan beharko luketen adierazi du: "piramide itxurakoak barik, energia, emozio eta ideien batasunaren gainean eraikitako egiturak izango dira, eta elkarri besarkaturik dauden eta gurutzen dituzten zereginekin gozaten duten pertsonak osatuko dituzte".

Itziar Aduriz: "Hizkuntzalariok zer garen eta zer egiten dugun jakiteko, beharrezkoa zen topaketa hau antolatzea"

Berrogeita hamar hizkuntzalari bildu ziren atzo Eibarren Hizkuntzalari Euskaldunen I.Topaketan, "Egungo Ikerlerroak" izenburupeko jardunaldian. UEUko Hizkuntzalaritza Sailburuak diren Itziar Aduriz eta Ruben Urizar-ek balorazio oso positiboa egiten dute bilkuraz. Itziarrekin topaketaren nondik norakoan inguruan jardun dugu.

Zergatik antolatu duzue Hizkuntzalarien topaketa hau?

UEUn egon den sailen berreskurapenaren bidetik aurreko udaran, bazkideei deialdia luzatu zigun UEUK, koordinatzaile gabe zeuden sailetan sailburuak lortzeko helburuarekin. Proposamena erakargarri egin zitzaidan eta Ixa taldeko hizkuntzalarien parte bezala, martxan jarri nintzen. Jaso nuen proposamena bilera batetara eraman nuen, iruditzen zitzaidalako Hizkuntzalaritza Saila aurrera ateratzea interesgarria izan zitekeela, behar hori ikusten nuelako hizkuntzalari gisa. Bilera horretan proposatu nuen ea erronka hori hartuko genuen. Orduan hasi ginen "zer eta nor garen?" eta "zer egiten dugun?" galderi erantzuten.

Beharrezkoa ikusten duzue hizkuntzalariak batzea?

Segituan hasi ginen topaketak prestatzen, norberak zeuzkan ikerketak erakusteko bide ona zela ikusten genuelako. Tesiak egiten ari zirenen proiektuak ezagutzea interesgarria izango zela pentsatu genuen, eta horri ekin genion. Hala ere, tesigileez gain, ikasleak ere etorri dira. Asmoa Euskal Herri mailan zer egiten den eta nondik norako ikerketak egiten diren jakitea eta elkar ezagutzea da eta lehenbiziko topaketa izateko, balorazio oso positiboa egiten dugu.

Zeintzuk izango dira landu dituzuen gaiak?

Nagusiena ahozketasunaren gaia izan da: Mitxelenarekin lotutako bat, irakasle eskoletan ahozketasuna lantzearekin lotutako beste bat, etab. Hurrengokoak teorikoak izan dira, non aldakortasuna lantzen den (hizkeren eta hizkuntzen arteko aldakortasuna), gehien bat Filologia eta Hizkuntzalaritza fakultatetan lantzen dena. Eta hirugarren gai nagusia, hizkuntzalaritza Azkenik, gai solteak ere ekarri ditugu, adibidez: gazteen hizkeraren inguruko bat, etab.

Euskararen gaur egungo egoera zein den ikusita, zein puntu landu edo hizkuntza zein ikuspegitik landu beharko litzatekeela uste duzue?

Euskararen jarraikortasun eta mantentzearen inguruko galdera denez, esan behar dut soziolinguistikakoak ez ditudala ikusi. Uste dut soziolinguistika lantzea derrigorrezkoa dela eta alor horretako lan gehiago egin beharko liratekeela. Dena dela, lehen jardunaldi honetan nahiko gaitegi zabala lortu dugu eta pozik nago. Ikerketa hauek guztiek lagunduko dute euskararen ezagupen handiagoa egon dadin, eta behar beharrezkoa da topagune bat edukitzea hauek guztiak ezagutzea. Eta hori UEUK ematen digu.

Txuz Perez de la Fuente: "Iraganeko datuetatik ikasiz etorkizuneko iragarpena egitea da Wekaren helburua"

Weka entzun eta zer ote den galdezka hasten direnentzat UEUK *Weka*, *ikasketa automatikorako tresna: datuetatik erabakietara* ikastaroa antolatu du. [Txuz Perez de la Fuente](#)

Prentsa-harremanetarako: Idoia Torregarai

Tel.: 629 48 24 74

komunikazioa@ueu.org



ueu

udako
euskal unibertsitatea

ren gidaritzapean atzo eta gaur indarrak batu eta ordenagailuaren aurrean tresna hau zer den eta nola erabiltzen den ikastera etorri dira.

“Weka, programazio informatikoa da, ikasketa automatikoa egiteko”, dio Txus Perezek. Gaur egun ordenagailuetan datu pila bat daude bilduta non etorkizuna iragartzeko balio duten, azaltzen digu Perezek: “Datu hauen artean dauden erlazioak bila daitezke, estatistikako tekniketan oinarrituta”. Eguraldiaren iragarpena egin daiteke, adibidez. Egun jakin batean egin duen temperatura eta hezetasuna kontutan hartuta, biharko iragarpenak errealitatera asko hurbiltzeko aukera izango du. Azken batean Wekaren helburua horixe baita, “iraganeko datuetatik ikasiz etorkizuneko iragarpena egitea baita”. Ikastaroaren helburua tresna ezagutu, datu-meatzaritzaren prozesu osoa ezagutu, ikasketa automatikoko oinarri minimoak ezagutu eta tresna erabiltzeko oinarrizko trebetasunak erakustea izan da, irakaslearen hitzetan.

Weka programa erabiltzen hasteko lehenik eta behin, datu base bat behar da. Datu base horretatik ondoren algoritmoen erabilerarekin batera, datu esanguratsuak aurkeztu daitezke. Txus Perezek dio telekomunikazio enpresetan iruzurra detektatzeko erabiltzen dutela, besteak beste: “mugikorra izurratu zaiela eta beste baten bila asko joaten zaizkie. Pertsonak aztertuta, perfil konkretu bat atera dezakete iruzurra egiteko joera gehiago dutenak detektatzen dituzte”.

Weka software librean oinarritutako tresna da eta Perezek nabari du euskaraz software librearen presentziak gora egin duela. Irakaslearentzat software librea oso interesagarria da: “Ikusi egin dezakezu zein den hasierako kodea, iturburua dena. Eta ez hori bakarrik, hobetu egin dezakezu hasieran jaso duzun kodea, tresna berri bat sortuz”. Azken batean, Weka-ren atzean matematikarekin batera, prozesu bat dago eta software librea izatean atzeko lan hori ikusteko aukera ematen du ondoren bakoitzak nahi duen modura moldatzeko. Hala ere, aldatzea zaila izan daitekeela aitortzen digu Perezek, oso sistema konplexua delako baina abantaila handiak dituela aitortzen du: “zure enpresara egokitu dezakezu; logoa jarrita edo kodea aldatuta, zure beharretara moldatu dezakezu”.

Gaur egun, ordenagailua horren garrantzitsua den garaian “askotan harrapatuta gaudela”, dio Perezek. Izan ere, software itxiek, hala nola Microsoftek, ez dute aukera ematen bakoitzaren beharretara moldatzeko eta “kasu horretan, erabilera murriztua izango duzu”. Hori dela eta, Software librearen garrantzia handitzen ari da gero eta gehiago.

Ikastaroak jarraitzeko:

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/ueu365>

[#UI41](#)

**Informazio gehiago eta matrikula:
www.ueu.org**

Prentsa-harremanetarako: Idoia Torregarai
Tel.: 629 48 24 74
komunikazioa@ueu.org